

EUSKAL HERRIA GLOBALIZAZIOAN

NOLAKO MUNDUA, HALAKO HERRIA



Alaia Saenz Orbe

Alaiasaenzorbe@gmail.com

Aurkibidea

1. LABURPENA	1
2. SARRERA	2
3. METODOLOGIA	3
4. GARAI BERRI HONEN INTERPRETAZIOAK:	4
4.1. SARRERA:	4
4.2. JAVIER ECHEVERRÍAREN INTERPRETAZIOA:	5
4.3. MANUEL CASTELLSSEN INTERPRETAZIOA:	10
5. BOTEREA GLOBALIZAZIOAN:	12
5.1. NORK DAUKA BOTEREA?	12
5.2. ESTATU-NAZIOA	16
5.3. GLOBALIZAZIOA JUSTIFIKATZEN DUEN IDEOLOGÍA VS. KOLOKAN JARTZEN DUENA	18
6. BOTERE ANTOLAERA HONEN KONTRAJARTZEA	24
6.1. ERRESISTENTZIA TALDEAK:	24
6.2. IDENTITATEAREN BILAKETA	26
6.3. NAZIONALISMOA	28
6.3.1. <i>Status quaestionis</i>	28
6.3.2. <i>Nazionalismoaren sorrera</i> :	31
6.3.3. <i>Nazionalismo menperatzailea</i>	32
6.3.4. <i>Erresistentziako nazionalismoa</i>	35
7. EUSKAL HERRIA GLOBALIZAZIOAN	36
7.1. EUSKAL IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA:	36
7.2. BI ERRONKA NAGUSI	39
7.2.1. <i>Teknologia</i>	40
7.2.2. <i>Immigrazioa</i> :	45
8. ONDORIOA	56
9. BIBLIOGRAFIA	58

1. Laburpena

Euskal Herria globalizazioan.

Euskal Herria informazioaren garaian.

Euskal Herria merkatuaren fundamentalismoan.

Euskal Herria transnazionalitatean.

Euskal Herria nazionalismoaren berpizkundean.

Kontraesankorra dirudien errealitate honek gure errealitate txikian izugarrizko eragina dauka, baina nolakoa da garai berri hau? nork agintzen du? (zergatik?) nor matxinatzen da botere sistema honen kontra? (zergatik?), zer nolako eragina du gure herrian eta gure hizkuntzan? eta zeintzuk dira Euskal Herrian sortutako erronka berriak?

Galdera hauei eta beste batzuei erantzuten saiatuko naiz lan honetan.

2. Sarrera

Izenburuak “Euskal Herria globalizazioan. Nolako mundua, halako herria”, lanaren gaia laburbiltzen du. Globalizazioa aztertzen saiatuko naiz eta honek Euskal Herrian duen eragina. Horretarako bibliografian agertzen diren liburuetatik baliatu naiz eta nire gogoeta pertsonaletaz.

Lan honek helburu nagusia Euskal Herria eta bere auziak kontestualizatzea da. Hala ere, badaude bigarren mailako helburuak:

- 1) Globalizazioaren ezaugarrietaz jabetzea.
- 2) Globalizazioko botere antolaketa berezia ezagutzea.
- 3) Botere honen kontra matxinatzen diren pertsonak edo taldeak zeintzuk diren jakitea.
- 4) Matxinada horretan Euskal Herriaren papera zein den jakitea.
- 5) Globalizazioak Euskal Herrian eta euskaran zer nolako eragina izan ahal duen aztertzea.

Oro har, helburu bakoitza lanaren gai bakoitzari dagokio; hau da, lehenengo helburua lehenengo puntuan lortu nahiko da, bigarrena bigarrenean, hirugarrena hirugarrenean eta azkena azkenengoan. Baina salbuespen bat dago: laugarrena, “matxinada horretan Euskal Herriaren papera zein den jakitea”, azken bi puntuetan lantzen da; hirugarrenean, urrunagotik eta laugarrenean, hurbilagotik.

Azkenik, bi iruzkin egin nahi ditut sarrera bukatu baino lehen:

- 1) Euskal Herriari buruz hitz egiten dudana gehienetan EAE-n pentsatzen nago, hoberen ezagutzen dudana delako.
- 2) Aitortu behar dut lan honek sakontasun handiagoa izan beharko lukeela, baina, batez ere, denbora faltagatik ezinezkoa izan dela.

3. Metodologia

Sakontze egitasmoa burutzeko metodologia dialektiko-kritikoa da, lanari kutsu eraldatzailea edo iraultzailea ematen saiatu naiz. Uste dut nahikoa dela laneko aurkibidera edota bibliografiara jotzea horretaz ohartzeko.

Ikuspuntu filosofikotik landutako lana da, nahiz eta batzuetan soziologiako metodologia ere erabili, estatistikak, adibidez. Ez naiz urruneko aztertzaile bat bezala mantendu, baizik eta nire interpretazioa eta gogoetak noizbehinka gaineratu nahi izan ditut. Hala ere, lana adituen interpretazioetan oinarritzen da. Miresten ditudan adituen azalpena agertzen da, Barquin, Castells, Marcuse, Sádaba, etabarrena.

Ordenari dagokionez, aurkibidean ikus daitekeen bezala, orokorretik partikularrera joaten saiatu naiz, gaia mugatuz eta zehaztuz.

4. Garai berri honen interpretazioak:

4.1. Sarrera:

Pentsalariak ez dira ados jartzen izen bat ipintzen bizi garen garai berri honi. Bakoitzak ezaugarri bat nabarmendu nahi du: informazioa, komunikazioa, teknologia, mugikortasuna... eta horregatik izen desberdinak erabiltzen dituzte: globalizazioa, informazioaren garaia, komunikazioaren gizartea, hirugarren ingurunea... Hala ere, pentsalari askok batez ere eragile hau azpimarratu nahi dute: teknologiaren garapena (internet, sare telematikak, telebista...).

Castells-en aburuz honek, hain zuzen ere, ahalbidetu du gizarte berri bat sortzea, “gizarte sarea”: informazioan oinarritutako ekonomia eta kultura. Castells-en gizarte sareari Javier Echeverriak hirugarren ingurunea deituko dio. Oro har, xehetasun kontua dela esan dezakegu, baina orain ikusiko dugu.

4.2. Javier Echeverría-ren interpretazioa¹:

Javier Echeverría-k hiru ingurune nagusi bereizten ditu: lehenengoa (I1), bigarrena (I2) eta hirugarrena (I3). Lehenengo ingurunea “physis”-arekin lotuta dago eta bigarren ingurunea “polis”-arekin. Gure garaian oraindik bi ingurune hauek mantentzen dira baina gero eta hirugarren inguruneko (espazio-elektronikoko) elementu gehiago daude gure bizitza arruntean: sakelako telefonoa, kreditu txartela, ordenagailu eramangarria...

Lehenengo ingurunea ingurune naturalari deitzen dio. Kultura nomadak edo sedentarioak lehenengo ingurunera egokitzeko gai izan zirenetik, gizakiok ingurune naturalarekin harreman estua izan dugu. Edukitako erlazio eta interakzioak zentzumen-espazioagatik mugatuak daude. Gainera, presentzia eta aldiberekotasuna baldintza beharrezkoak dira kanpokoarekin erlazionatzeko: hurbil dagoena eta orain dagoena hautematen dugu.

Echeverría-ren arabera, bigarren ingurunea ez da naturala, baizik eta kulturala eta soziala. Honi ingurune urbanoa ere deitzen dio. Bigarren inguruneak ez dakar lehenengoaren desagerpena, baina bai bere eraldaketa. I1 nabarmentzen da animalia eta landare bizitzako makina bat formek osatzen dutelako eta I2 giza-formak hedatzeko gaitasunagatik. I2 artifiziala da baina I1etik hartutako materialengatik eraikitzen da.

Bigarren ingurunea natura eta artifizio arteko nahasketa bada, hirugarren ingurunean artifizialtasuna ikaragarriagoa da, bere jatorri naturaletik ia erabat bereizten duelarik. I3 zeinbat teknologiek ahalbidetzen dute, Echeverría-ren ustez, zazpik: telefonoak, irratiak, telebistak, diru elektronikoak, sare telematikak, multimediak eta hipertextuak.

Ingurune naturala eta urbanoa euren artean oso deberdinak izan arren, hirugarren ingurunetik bereizten dituzten ezaugarri komunak dauzkate. Hori

¹ Atal honetan bildutako informazio osoa Javier Echeverría-ren “Los Señores del aire: Telépolis y el Tercer Entorno”-tik hartuta dago. Bere pentsamendua errespetatzen saiatu naiz, gogoeta pertsonalak erantsi gabe.

dela eta, Echeverriak I1-ek eta I2-k dituzten ezaugarriak eta I3-k dituenak alderatzen ditu. Laburbiltzen saiatuko naiz²:

1)Hurbiltasuna/urruntasuna: I1 eta I2-n sentsazioak edukitzeko edota parte hartzeko egile bat, E, O objektuaren ondoan egon behar da. E-k O hautematen edo manipulatu badu T tresnen laguntzarekin, tresna horiek ere E-tik gertu egon behar dira. Honekin esan nahi du I1 eta I2ko jarduera gehienetan gertutasuna beharrezkoa dela. I3-ko jarduerak, berriz, posibleak dira nahiz eta E, O edota I urrun egon. Teknologiari esker, gertutasun fisikoa ez da beharrezkoa.

2)Hersgunetasuna/Erretikularitasuna: I3-n telefonoz hitz egiteko, telebista ikusteko, kutxazaina edo ordenagailua erabiltzeko ez da beharrezkoa toki batera joatea; beste bi inguruneetako jardueretarako, bai.

3)Prezentzia/ordezkapena: I1 edo I2-n parte hartzeko E egileak fisikoki bertan egon behar du; I3an, ostera, ez da beharrezkoa.

4)Materialitatea/informazionalitatea: I1 eta I2-ko E egileak, O objektuak, T tresnak eta H hersguneak materialak dira: atomoz eta molekulez osatuta daude. I3, ordea, informazionala da; informazioko bitsek eta ez atomoek ahalbidetzen dutelako I3-ko irudikapenen sorrera.

5)Naturaltasuna/artifizialtasuna: Hemen ezberdintasuna I1 eta I3-ren artean dago, I2 erdian kokatzen delarik. I1 naturala da; I3 ingurune naturalaren gainean sortuta egon arren, artifiziala da; eta I2 bien bitartean dago, ez da ez bata ez bestea, bere forma gehienak gizakiak eraiki baditu ere, erabilitako materialak lehengai naturak dira. I3-k erabiltzen dituen osagarri gehienak (sateliteak, antenak, txipak...), ostera, laborategietan sortu dira. Beraz, I1 naturala da, I3 artifiziala eta I2 artifizial-naturala.

6)Sinkronikoa/multikronikoa: I1 eta I2-n E, O eta T-ren presentzia espaziala beharrezkoa izateaz gain, presentzia tenporala ere

² Hitz hauen itzulpena egitea nahiko zaila deritzot; horregatik, gaizki-ulerturik ez egoteko, hitz originalak aipatuko ditut: 1)proximalidad versus distalidad, 2)recintualidad versus reticularidad, 3)presencia versus representación, 4)materialidad versus informacionalidad, 5)naturalidad versus artificialidad, 6)sincrónico versus multicrónico, 7)extensión versus comprensión, 8)movilidad física versus flujos electrónicos, 9) circulación lenta versus circulación rápida, 10)asentamiento en tierra versus asentamiento en el aire, 11) estabilidad versus inestabilidad, 12)localidad versus globalidad, 13)pentasensorial versus bisensorial, 14) memoria natural interna versus memoria artificial externa, 15)analógico versus digital, 16)diversificación versus integración semiótica, 17)homogeneidad versus heterogeneidad, 18)nacionalidad versus transnacionalidad, 19)autosuficiencia versus interdependencia, 20)producción versus consumo.

nahitaezkoa da: jarduerak irauten duen bitartean E, O eta T bertan egon behar dira. Aitzitik, I3-n ez da beharrezkoa; adibidez, edonork zabal dezake posta elektronikoa edozein ordutan, bere solaskideak mezua aspaldi bidali izan arren.

7)Hedadura/trinkotasuna: existentzia fisikoa hedaduraren ikuspegitik ulertu ohi da; hots, espazioa eta denbora hedadurarekin lotuta ulertu dira. I3n, berriz, garrantzitsuena ez da hedadura edo distantzia, baizik eta nodoak elkarren artan lotzen dituzten zirkuituak eta loturak.

8)Mugikortasun fisikoa/ fluxu elektronikoak: I1 eta I2-ko jardueretarako egileen, objektuen edota tresnen mugimendu fisikoa beharrezkoa da. I3-n, ostera, gorputzak mugitu gabe jardun daiteke, irudikapenak aldatzen dituzten fluxu elektronikoak sorraraziz.

9)Zirkulazio geldoa/zirkulazio azkarra: mugimeduari dagokionez, I1-en aldaketa prozesuak oso geldoak dira, I2-n arinagoak eta I3-n askoz arinagoak.

10)Finkapena lurrian/airean: I1 eta I2 lurrian finkatzen dira eta I3-ren zimenduak, berriz, atmosferako hainbat mailatan. Zimendu hauek sateliteak elkarren artean lotzen dituzten komunikazio-satelite nagusiak dira.

11)Egonkortasuna/ezegonkortasuna: I1 oso egonkorra da, I2 ez da hain egonkorra (materialen erresistentziaren menpe dago) eta I3 oraindik gutxiago, telekomunikazioen sistema bere diseinuaren eta mantentze lanaren menpe dagoelako.

12)Bertakotasuna/globalitatea: I3-ko berriztasunetako bat globalitatea da: esparru nazionalen gaintzea eta espazio, erakunde eta korporazio transnazionalen agerpena.

13)Pentasentsoriala/bisentsoriala: Agerikoa da ikusteak, entzuteak, ukitzeak, usaintzeak eta dastatzeak I1 eta I2-ko zentzumenei aniztasun eta aberastasun handia ematen diela, batez ere, I3-ko ikus-entzunezko inpresioekin aldaratzen baditugu.

14)Barneko memoria naturala/kanpoko memoria artifizia: I1-en memoria mentala da; I2-n, idazketa eta inprentari esker, memoria kanpoko izatera heldu zen, baina ingurune hurbil batean mantenduz (liburutegian, bulegoetan...) eta I3-n, memoria kanpoko eta artifizia da, memorizazio sistemen paradigma disko gogorra delarik.

15)Analogikoa/digitala: I1 eta I2 analogikoak diren bitartean, I3 digitala da.

16)Dibertsifikazio/integrazio semiotikoa: I1 eta I2-ko dibertsifikazio semiotikoak kulturak elkarren artean bereiztu ditu. I3k zeinuen plurilatitatea mantendu du baina sistema semiotiko bakar batean integratu ahal izan ditu, sistema digitalean.

17)Homogeneotasuna/hetereogeneotasuna: I1 kultura etnikoak bereiztuta agertzen diren esparru homogeneoa da. I2-n, ordea, nahasketa handiagoa ematen da eta I3-n heterogeneotasu kultura askoz handiagoa da. I3 esparru eleanitza da, aurrerakuntza teknologikoei esker edozein hizkuntza erabili daitekeelako.

18)Nazionalitatea/transnazionalitatea: I1-en nazionalitatea garrantzitsua izan bada, I2-n askoz gehiago. I2-n estatu-nazioak izan dira forma sozial nagusiak. I1 eta I2 existitzen jarraituko dute eta baita euren mugak ere, baina I3-rekin forma politiko, militar, ekonomiko eta kultural transnazionalak sortu dira.

19)Autosufizientzia/interdependentzia: I1-eko gizakien ideala autosufizientzia da. I2-n, ideal bera eduki arren, komunitateen arteko menpekotasuna handiagoa da eta horregatik salerosketan aritzen dira, harremanak izaten dituzte eta hiriak, elizak eta estatuak eraikitzen dituzte. I3-ko jarduerak, ordea, teknologiaren funtzionamenduaren menpe daude. Interdependentzia handiagoa da. Erabilitako tramankuluak konplexutasun handikoak direnez, jende gehienak ez du ulertzen funtzionamendua, baina euren menpe daude.

20)Ekoizpena/kontsumoa: I3-ko berriztasunetako bat jolasten edo denbora pasa aritzen den edonor kontsumo ekintza emankorra egiten ari dela da, enpresa batzuetarako onurak dakartzan kontsumo ekintza.

Echeverría-ren ustez, azaldutako hogeitaz hamar dira hirugarren ingurunea deitutako espazio-denbora sozial berri batean gaudela frogatzen dutenak.

Era berean, I3 hiri global bat bezala pentsa daitekeela uste du. Telepolis, hiri globala, XX. mende amaieran I3-an garatzen joan diren interakzio sozialeko

forma guztiek osatzen dute. Bere aburuz, I3 eta Telepolis planeta osotik hedatzen ari dira.

Gainera, Echeverría-ren arabera, Telepolis egoera neofeudal batean dago eta I3 aireko jaunen menpe dago. Hirugarren inguruneko espaziora sartzeko badago baldintza bat: beharrezkoa da "Aireko Jaunen" onespena. Bigarren ingurunea estatu eta erakunde publikoen esku zegoen; hirugarrena, ostera, multionazionalen esku: Microsoft, Intel, Dell, Sony, Telefónica...

4.3. Manuel Castellsen interpretazioa³

Castells-ek izugarri sakontzen du gai honetan. Mundu berri baten aurrean gaudela uste du: informazioaren garaia. 60. hamarkadaren amaieran eta 70.aren erdialdean sortu zen, hiru prozesu independenterekin batera: 1) iraultza teknologikoa, 2) kapitalismoaren eta estatismoaren krisi ekonomikoa eta 3) mugimendu sozial eta kultura berrien loraldia: ekologismoa, feminismoa, giza eskubideen defentsa...

Castells-ek teknologia aukeratzen du informazioaren garaiko funtzesko ezaugarri bezala, gaur egun beraren menpe baitaude aberastasunaren sorrera, boterearen erabilera eta kodigo kulturalen sorrera. Informazioaren teknologiari esker sortutako sare interkonektatuak bizitza sozial eta ekonomikoko esparru guztiak eraldatu ditu. Adibideak jartzearen, gizakion arteko komunikazioa, ohiturak, erosketak, aisialdia... eraldatzea lortu du.

Castellsen aburuz, informazioaren garaian gizarte berri bati buruz hitz egitea ahalbidetzen duten hiru betekizunak betetzen dira:

1) Produkzio harremanetan izandako aldaketak: Gaur egun, produkzio harremanen nerbiogunea finantza sare globalak dira eta bertan enpresek, gobernuek, produktore finantzierok, erakunde publikoek... euren irabaziak uzten dituzte etekin handiagoak edukitzeko. Gainera, langileriaren segmentazioak (ekoizle informazionalen eta ordezkatuak izan daitezkeen langile arrunten arteko segmentazioak) eta finantza globalek bi ondorio nagusi izan dituzte:

1) langile eta konsumitzaile bezala baliogarriak ez diren pertsonen bazterketa, ezberdintasuna eta polarizazio soziala handituz,

2) gizarte industrialeko gizarte klaseen jarraikako desagerpena.

2) Botere harremanetan izandako aldaketak: estatu nazioaren krisiak botere harremanen eraldaketa eragin du. Elkarlehiarekiko presioak, lanaren malgutasunak, sindikatuen ahuldurak eta soberaniaren mugen difuminazioak eragin du herriaren nahiak gero eta garrantzi gutxiago izatea, estatuaren

³ Echeverriarekin bezala, Castellsen pentsamendua errespetatzen saiatu naiz.

ongizatearen murriztapena eta estatuaren autoritatea eta legitimitatea kolokan jartzea.

3)Esperientzia harremanetan izandako aldaketak: Castellsek aldaketa batez ere autoritate patriarkalean oinarritzen du, giza harremanetan aurrezarritako jokabideak ez direlako jarraitzen, pertsona bakoitzak sortzen du nahi duen harremana.

Gizarte egitura berria produkzio, botere eta esperientzia sareen gainean eraikitzen da, denbora atemporealean eta fluxuen espazioan oinarritutako birtualitatearen kultura sortuz.

Hala ere, Castellsek uste dut gizarte berria ez dela sortzen eraldaketa teknologiko eta ekonomikoengatik bakarrik, baizik eta mugimendu sozial berrien sorreragatik. Prozesu hauen elkarreraginagatik eta bere aurka sortutako erreakzioengatik hiru sorrera nagusi egon dira:

- 1)Gizarte egitura berri batena: gizarte-sarea⁴;
- 2)Ekonomia berri batena: ekonomia informazional/globala⁵
- 3)Kultura berri batena: birtualitate errealearen kultura⁶.

⁴ “la sociedad red”

⁵ “la economía informacional/global”

⁶ “la cultura de la virtualidad real”

5. Boterea globalizazioan:

5.1. Nork dauka boterea?⁷

Garai berri honetan gaitasunen, trebetasunen, hezkuntzaren eta informazioaren balioa handitu da, aberastasuna sortzen duena ez delako lan fisikoa, baizik eta “metafisikoa” (informazioan oinarritutako lana).

Gaur egun, balioa daukana informazioaren kontrola da eta hori da, hain zuzen ere, eszedentea sortzen duena: mugimendu arinak, ondo informatuak eta edozein lekutik egindakoak. Deslokalizazioa da ezaugarri nagusietako bat eta eragina eta boterea duten pertsonak horrelaxe daude, nahiz eta langile arruntek gizabanako lokalizatuak izaten jarraitzen duten. Baina nortzuk dira deslokalizatuta dauden boteretsu horiek?

Joseph Eugene Stiglitz-en arabera, hauek dira globalizazioa gobernatzen duten hiru erakunde garrantzitsuenak:

1)NMF (Nazioarteko Moneta Funtza⁸);

2)BIRD (Berreraikuntza eta Garepeneko Nazioarteko Bankua edo Munduko Bankua⁹);

3)MMA (Munduko Merkataritza Antolakundea¹⁰).

Lehenengo bi erakundeak G7-k (gehien industrializatutako zazpi herrialdeek¹¹) eta, batez ere, bere Ogasun ministroek eta Altxorraren idazkariek zuzentzen dute. Hala ere, erakunde hauen atzean ez daude bakarrik herrialde hauek, baizik eta euren finantza eta merkataritza interesak.

Stiglitzek ondo ezagutzen du mundu hori: 2001ean ekonomia Nobel saria jaso zuen eta gainera, Munduko Bankuko presidentea ere izan zen. Hori dela eta, NMF-an eta MMA-an nortzuk agintzen duten jakinarazten digu:

⁷ Beck-en eta Stiglitz-en pentsamenduan oinarritzen naiz.

⁸ FMI, Fondo Monetario Internacional

⁹ BM, Banco Mundial

¹⁰ OMC, Organización Mundial del Comercio.

¹¹ Estatu Batuak, Japonia, Alemania, Kanada, Italia, Frantzia eta Erresuma Batua.

En el FMI son los ministros de Hacienda y los gobernadores de los bancos centrales. En la OMC son los ministros de comercio. Cada uno de estos ministros se alinea estrechamente con grupos particulares en sus propios países. Los ministros de comercio reflejan las inquietudes de la comunidad empresarial¹².

Gainera, "los ministros de Hacienda y los gobernadores de los bancos centrales suelen estar muy vinculados con la comunidad financiera; provienen de empresas financieras y, después de su etapa en el Gobierno, allí regresan¹³".

Globalizazioa maila guztietan eman arren, dena maila ekonomikoaren menpe dago. Ulrich Beck-ek dioena egia da, apolitikoa bezala aurkezten bada ere, ekintza guztiz politikoa da. Globalizazio ekonomikoa ez da automatismoa, baizik eta BIRD-ek, MMA-k, ELGE-K (Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundeak), enpresa multinazionalak eta nazioarteko erakundeek bultzatutako proiektu politiko bat. Horregatik, hain zuzen ere, 1999ko Azaroaren 30ean Seattle-en egin zuten protesta manifestariak:

Las manifestaciones en Seattle agitaron la conciencia pública en todo el mundo por su impacto en los medios de comunicación globales, llamando la atención de todos sobre el hecho de que la globalización no era un proceso natural sino una decisión política. Es más, los que protestaban en Seattle pusieron sobre el tapete del debate público su concepción de que los modos específicos en los que el proceso globalizador tenía lugar estaban conformados por poderosos intereses económicos e ideológicos de una elite global dominante¹⁴.

¹² Stiglitz, J. El malestar en la globalización. Taurus, p. 44-45

¹³ o.c., p. 45.

¹⁴ Castells, vol.2. p.175.

Egia da globalizazioak herrialde batzuen aberastasuna eta jende askoren bizi-kalitatea handitu duela, munduko toki batzuen isolamendua murriztu duela, gai batzuen ezagutza erraztu duela eta mundu osoko ekintzaileen arteko lotura hobetu duela. Hala ere, desberdintasun ekonomikoak handiagotu ditu, Hirugarren Mundua txirotasunean hondoraraziz. Stiglitz-ek XX. mendeko azken hamarkadan ehun milioi txiro gehiago zeudela dio, errenta urtero %2'5 igo arren. Arazoa ez da globalizazio bera, baizik eta NMF-k, BIRD-ek eta nazioarteko erakundeek kudeatu duten modua.

NMF eta BIRD 2. Mundu Gerran sortu ziren Europa berreraikitzeke eta G-7-ko gobernuek zuzentzen zituzten bi erakunde hauek. Lehenengoak egonkortasun ekonomiko globala bermatu behar zuen, beheraldi ekonomikoa galaraziz, eta bigarrenak berreraikuntza eta garapen internazionala lortu behar zuen. Stiglitz-ek dioenagatik, 80. hamarkadan erakunde hauek aldaketa ikaragarria pairatu zuten: NMF merkatuaren akatsak onartzetik, Reagan eta Thatcher-en merkatu askearen ideologia guztiz aldarrikatzera pasatu zen. Badirudi NMF erabat aldatu zela, hasieran merkatuek askotan txarto funtzionatzen zutela uste zuen baina, denboraren poderioz, merkatuen gailentasuna sutuki defendatzen hasi zen; Stiglitz-en hitzetan, merkatuaren fundamentalismoa defendatzen hasi zen.

Hala ere, politika ekonomiko hau nahiko hipokrita izan zen. Esate baterako, azpigaratutako herrialdeei nekazaritzako produktuak saltzea galarazten zieten, baina merkatuko mugak zabaltzen zituzten industrializatutako herrialdeen produktuak saltzeko.

Egia esan, kapitalismo berri honen izena ez litzateke globalizazioa izan behar, baizik eta internazionalizazioa. Produkzio eta merkataritza harreman transnazionalak barrualdean indartu dira eta hainbat eskualde mundialen artean: Amerika, Asia eta Europa. Alemaniako kanpo-merkataritza, esate baterako, batez ere mendealdeko herri industrializatuetan gauzatzen da. Hala ere, globalizazio hitzarekin jarraituko dut, fenomeno hau definitzen duen hitzik ezagunena baita.

Beck-en ustez, globalki nahasita dagoen kapitalismoaren aurrean gaude, ez baita existitzen gobernu edo estatu mundialik: ez dago nazioarteko erregimenik, ezta botere nagusirik ere, alde ekonomikoan edo politikoan.

Ez dagoenez hau kontrolatuko duen erakunderik, herri aberatsek ipintzen dituzte komeni zaizkien arauak. Oso arazo larria da globalizazioa gainbegiratuko duen gobernurik ez egotea. Gobernu gabeko Estatu handi batean bizi gara. Hori dela eta NMF-k, BIRD-ek, MMA-k eta beste parte hartzaile batzuek (Finantza, Ekonomia eta Merkataritzako ministro batzuk) mundua kontrolatzen dute.

5.2. Estatu-nazioa

Honek guztiak estatu nazioaren paperean eragina dauka, estatu nazioak indarra galtzen ari delako. Estatu-nazioa ez da gai aipatutako erakundeen botereari aurre egiteko. Krisian dagoela esan dezakegu.

Gaur egun, estatu-nazioaren menpe zeuden esparru asko (defentsa, ekonomia kudeaketa...) ezin dira landu kolaboraziorako forma multilateralak erabili gabe. Estatu-nazio indibidualek ezin dituzte konpondu beraiek bakarrik gaur eguneko arazo asko, adibidez, ingurugiroko arazoak. Estatu-nazioak gero eta botere gutxiago dauka. Europar Batasunean politika ekonomikoa Europako Banku Zentralak ezartzen du.

Estatu modernoa mendebaldeko Europan XVIII eta XIV. mendean sortu zen. David Held-en ustez, aurreko dominazio era politikoetatik bereizten zen simetria eta korrespondentzia zegoelako 3 kontzeptu hauen artean: subiranotasuna, lurraldea eta zilegitasuna. Berak uste du estatuak zilegitasuna zeukala lurralde jakin batean gobernatzeko herriak baimena ematen ziolako. Nik zalantza handiak ditut honetan, noren esku dago dago korrespondentzia hori? zer gertatzen da koloniek eta estaturik gabeko nazioekin? Hauei nork eskatu zien baimena?

Hala eta guztiz ere, herriaren nahia errespetatzeak ematen duen zilegitasuna lehen ez bazen eskuratzen, orain gutxiago. Boterea herrietatik eta herriaren borondateatik at dago, ez dago “demo”-“krazia”-rik.

Estos desarrollos desafían tanto a la soberanía como a la legitimidad de los Estados. Desafían a la soberanía porque la autoridad política de los Estados se ve desplazada y comprometida por los sistemas regionales y globales de poder, ya sean políticos, económicos o culturales. Desafían a la legitimidad del Estado porque, con la mayor interdependencia regional y global, los Estados no pueden suministrar bienes y servicios sin la cooperación internacional¹⁵.

¹⁵ Held, D. *Globalización/Antiglobalización*. p.20.

Botere politikoa ez da erabat oinarritzen gobernu nazionaletan, baizik eta nazioko, eskualdeko eta nazioarteko indar eta erakunde desberdinen artean.

El espacio político para el desarrollo y consecución del gobierno efectivo y el control sobre el poder ya no se identifica con un territorio político delimitado. Las formas de organización política ahora implican una desterritorialización y una reterritorialización complejas de la autoridad política¹⁶.

Halaber, Held-ek auzi honen bost alderdi azpimarratzen ditu eta galdera bat uzten du airean:

1)Eskualdeen arteko eta eskualdeen barneko lotura ekonomikoa modu ezberdinean hazi da.

2)Konpetentzia globalak kolokan jartzen du hierarkia zaharra eta, honez gain, aberastasunean, boterean, ezagutzan... ezberdintasunak eragiten ditu.

3)Mugaz bestaldeko arazoek eta kontu transnazionalak garrantzi handia hartzen ari direnez, kolokan jartzen ditu gobernu nazionalaren papera eta bere erakundeak.

4)Botere banaketa berri honek bi galdera eragiten ditu: zein motatako mundua daude eraikitzen eta zeintzuk dira atzean dauden interesak?

5)Prozesu berriek politika, ekonomia eta aldaketa kulturala aztertzeke pentsatzeko forma desberdinak eskatzen dituzte eta erantzun irudimentsuak.

Estatu-nazio indibidualek ezin dituzte konpondu beraiek bakarrik gaur eguneko arazo asko, adibidez, ingurugiroko arazoak. Botere banaketa ez denez oso argia, Held-ek uste du zaila egiten dela zehaztea nork erantzun behar duen noren aurrean eta zergatik. Nork ematen die zilegitasuna estatuaren gainetik dauden erakundeei?

¹⁶o.c., p. 143.

5.3. Globalizazioa justifikatzen duen ideología vs. kolokan jartzen duena

Franckfort-eko Eskolak kritika latza egin zion bere garaiko gizarteari eta hau funtsatzen zuen pentsamenduari: positibismoari. Nire aburuz, kritika hori oso aberasgarria da eta gaur egun ere plazaratu daiteke. Marcusek egindako kapitalismoaren deskribapen honetan ikus daiteke bere pentsamenduaren gaurkotasuna:

Las tendencias principales son conocidas: concentración de la economía nacional en las necesidades de las grandes empresas, con el gobierno como una fuerza estimulante, de apoyo y algunas veces incluso de control; sujeción de esta economía a un sistema a escala mundial de alianzas militares, convenios monetarios, asistencia técnica y modelos de desarrollo; gradual asimilación de la población de «cuello blanco» y los trabajadores manuales, de los métodos de dirección en los negocios y en el trabajo, de las diversiones y las aspiraciones en las diferentes clases sociales; mantenimiento de una armonía preestablecida entre la enseñanza y los objetivos nacionales; invasión del hogar privado por la proximidad de la opinión pública, abriendo la alcoba a los medios de comunicación de masas. En la esfera política, esta tendencia se manifiesta en una marcada unificación o convergencia de los opuestos. El bipartidismo en política exterior cubre los intereses competitivos de los grupos mediante la amenaza del comunismo internacional, y se extiende a la política doméstica, donde los programas de los grandes partidos son cada vez más difíciles de distinguir, incluso en el grado de hipocresía y en los tópicos empleados¹⁷.

Positibismoa 1840. urtearen eta 1.Mundu gerraren hasieraren arteko tartean sortu zen pentsamendu korronte bat da. Positibismoak estabilitate politikoa, industrializazioa eta zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak goresten ditu.

¹⁷ Marcuse, H. *El hombre unidimensional*. Barcelona: Planeta Agostini. 1993, p.49.

Europar garapen desberdinak izan dituen arren, mugimendu positibistek funtsezko ezaugarri hauek betetzen dituzte:

1) Zientzia lehenesten dute: zientziek ezagunarazten digutena bakarrik ezagutu ahal dugu eta ezagutzarako balio duen metodo bakarra natur-zientziena da.

2) Zientzian eta arrazionaltasunean fede itsua daukate.

3) Natur-zientzien metodoa (lege kausalen aurkikuntza eta hauek gertakariengan daukaten kontrola) naturaren ikerketara aplikatzeaz gain, gizartearen ikerketarako ere erabiltzen da.

4) Positibismoak ez du bakarrik zientzia eta bere metodoa lehenesten, baizik eta gizakien eta gizartearen arazoak konpondu ditzakeen bide bakarra bezala aurkezten du.

5) Gainera, baikortasuna erakusten du etengabeko aurraperiak ongizateko baldintzak sortuko dituela uste duelako.

Positibismoaren ikuspuntua kapitalismoa barreiatu zen herri guztietan ezarri zen.

Beste aldetik, Francfort-eko eskola 1920. hamarkadan sortu zen ikerkuntza sozialerako Institutuan. Institutu hau gero eta garrantzi handiagoa lortzen hasi zen eta "gizarteari buruzko teoria kritikoa" deitutako programa lantzen hasi zen. Gizarteari buruzko teoria kritikoak gizarte kapitalistaren akatsak plazaratu nahi zituen. Hori dela eta, gizarte kapitalistaren pentsamendua (pentsamendu positibista) kritikatu du.

Garai hartan marxismoa ez zen gai kritika hori aurrera eramateko, iragarritako subjektu iraultzailea (langilea) sistemara egokituta baitzegoen. Hala ere, ideia marxista eta kantianoetan oinarrituko dira. Horregatik mugimendu honetako ideei nagusiak neomarxistatzat edo neokantiantzat joko dira.

Garai honetan kapitalismoa konplexuagoa bihurtuko zuten bi aldaketa gertatu ziren: 1) burokraziaren hedapena eta 2) teknologiaren garapena. Lehen talde botedereduna produkizorako instrumentu materialen jabe zen; hemendik aurrera, horrez gain, teknologia eta komunikabideen jabe izango da eta inoiz baino gehiago pertsonen pentsamenduaren jabe. Hau denborarekin gero eta nabariagoa izango da, oraingo egoerara heldu arte.

Marcusek, Francfort-eko eskolaren ordezkari nagusietako batek, “El hombre unidimensional”-en esaten du gizakia dimentsiobakarreko gizartean bizi dela; hots, positibismoak arrazionaltasun teknologikoaren izenean kritika ukatu du eta gizartearekiko eta naturarekiko domeinua gailendu da.

Estatu kapitalista estatu totalitarioa bihurtu da. Zoriontasunaren inguruan beti egon dira bi pentsamendu korronte nagusi: teleologikoa eta deontologikoa eta bi pentsalari nagusi: Aristoteles eta Kant. Aristotelesek, ikuspuntu teleologikotik, bertutea zoriontasuna lortzeko bidea zela uste zuen eta Kantek, ordea, Jainkoa alde batera utzita, ez zuen lotura zuzenik aurkitzen zoriontasuna eta justiziaren artean. Bi korronte hauetan beti eztabaidatu da ea zoriontasuna subjektiboa edo objektiboa den eta denetarik entzun da. Baina, nire ustez, orain arte denok pentsatu izan dute zoriontasuna topatzeko bidea norberak hasi behar duela subjektu aktibo bat bezala, kontzeptu subjektiboa edo objektiboa izan arren. Alabaina, sistema kapitalistak (bai garai hartakoak bai oraingoak) subjektu pasibotzat hartzen gaitu eta haiek asmatutako zoriontasun kontzeptua irenstea nahi dute.

Zoriontasun kontzeptu hau benetan ez ditugun beharrak asetzean oinarritzen da. Kontsumismora bultzatzen gaituzte. Zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta zoriontsuago izango gara. Interes ekonomiko edo politiko batzuegatik impositzen dizkigute behar hauek.

Marcuseren aburuz, iragarkietan agertutakoarekin bat datozen atsedean hartzearen, dibertitzearen, jokatzearen... beharrak gezurrezkoak dira. Besteek maite eta gorroto dutena maitatzea eta gorrotatzea behar faltsu hauen barnean sartzen da. Gerta daiteke jendeak pentsatzea behar hauek asetzeak nolabaiteko zoriontasuna ematen diela, baina Marcusek dioena kontuan hartzekoa da:

*No importa hasta qué punto se hayan convertido en algo propio del individuo, reproducidas y fortificadas por las condiciones de su existencia; no importa que se identifique con ellas y se encuentre a sí mismo en su satisfacción. Siguen siendo lo que fueron desde el principio; productos de una sociedad cuyos intereses dominantes requieren la represión*¹⁸.

¹⁸o.c., p.35.

Sistema kapitalista honek inoiz baino gehiago dominatzen du gizakia eta inoiz baino gutxiago errespetatzen du askatasun indibiduala. Manipulazio maila hain altua da, norbanakoak ezin duela libreki zoriontasuna bilatu. Gaur egun, dominazio hau oraindik agerikoagoa da eta dominatzeko estrategiak eraginkorrak dira. Nik, adibidez, askotan ikusten dut ezin dudala kontsumismotik ihes egin, nahiz eta nahiko kontzientea izan.

Komunikabideak dira manipulazio eta dominazioarako tresna nagusia. Tresna honek “abarca la existencia pública y privada en todas las esferas de la sociedad —es decir, llega a ser el medio de control y cohesión en un universo político¹⁹”. Alde batetik, pentsamendu unidimensionalak barnerarazi nahi digute eta, bestetik, behar faltuak sortzen dizkigute, iragarkien bidez.

Hala ere, nolabaiteko zoriontasuna dago gizartean, Marcusek “conciencia feliz” deitzen duena. Ez da benetako zoriontasuna, behar faltuetan oinarritutako zoriontasuna ez duelako norberak aukeratu eta gero eta behar gehiago asetzeko premia izango dugulako, inoiz erabat asetu gabe. Gogorra eta iraingarria izan arren, egia da esaldi hau “es mejor ser un ser humano insatisfecho que un cerdo satisfecho²⁰”. Beraz, menperatze-sistema hau aurrera eramaten duen estatua totalitarioa da, zoriontasun mota bat ere inposatu nahi digulako. Marcusek uste duen bezala, totalitarioa ez da bakarrik gobernatzeko berariazko modu bat, baizik eta ekoizteko eta banatzeko berariazko sistema bat, partiduen pluralismoarekin, prentsa askatasunarekin... bateragarria izan daitekeena.

Beste aldetik, sistema kapitalistaren atzean dagoen ideologia positibistak zientzia eta teknologiaren miresmena zabaldu du, hauek garatu diren heinean, eta arrazoia bere balio instrumentalera murriztu du. Modernitatean arrazionaltasunarekiko konfiantza itsua zegoen. Arrazoia ondo erabiliz, berdintasuna, justizia, askatasuna edo aurrerapena bezalako balio unibertsalak lortu ahal zirela uste zen. Gaur egungo ikuskeraren arabera, berriz, arrazoiak ez du balio etikaren eremurako, ez dituelako erantzun zehatzak ematen (matematiketan bezala). Aurrezarritako helburuak lortzeko instrumentua da.

¹⁹ o.c., p. 53.

²⁰Stuart Mill, J. *El utilitarismo*. Madrid: Alianza Editorial. 1984, p. 51.

Francfort-eko eskolaren arabera, positibistentzat arrazoiak gizakia eta ingurugiroa dominatzeko bakarrik balio du. Orain arrazoiak ez ditu oinarritzen gure bizitza bideratuko duten printzipio unibertsalak, zer den ona eta zer txarra; gaur egun, sistemak edo botereak ezartzen du zer den ona eta zer txarra.

El carácter «acientífico» de estas ideas debilita fatalmente la oposición a la realidad establecida; las ideas se convierten en meros ideales y su contenido crítico y concreto se evapora en la atmósfera ética o metafísica²¹.

Arrazoa etikatik aldenduz gero, kritikak balioa galtzen du: arrazoa ez denez gai erabakitzeke zer den kritikagarria eta zer aldarrikagarria, isilik geratu behar gara. Horrela pixkanaka-pixkanaka erdi lo bizi den gizarte bat sortuz joan da.

Arrazoa bere funtzio instrumentalera murriztearen eta “kontzientzia zoriontsua”-ren emaitza “es, no la adaptación, sino la *mimesis*, una inmediata identificación del individuo con su sociedad y, a través de ésta, con la sociedad como un todo”²². Marcuseren arabera, autonomia, egiaztapena eta kritika bezalako kontzeptuek lekua utzi diote izendapena, baieztapena eta imitazioa bezalako kontzeptuei.

Auzia beste era batera ere planteatu daiteke. Prozesu dialektiko batean bezalaxe, zientzia eta letren arteko borrokan, zientzia atera da garaile. Badirudi auzia puzten nagoela, baina benetan horrela dela uste dut.

Ezagutza eremu bakoitzak balore batzuk bultzatzen ditu; zientziak: arrazionaltasun zientifikoa, zehaztasuna, berrikuntza, aurrerapen teknologikoa, transformazio fisikoa... eta letrek: sentiberatasuna, malgutasun handiagoko arrazionaltasuna, interpretazioa, aurrerapen “espirituala”, transformazio psikikoa...

²¹ Marcuse, H. *El hombre unidimensional*. Barcelona: Planeta Agostini. 1993, p.175.

²² o.c., p.40.

Ukaezina da gaur egun zientziari eta teknologiari diogun miresmena eta nik ere ez diot meriturik kendu nahi. Azken urteotako ikerketek eta asmakuntzek herri aberatsetan bizitza kalitatea hobetzea ahalbidetu dute.

Arazoa beste ezagutza eremua baztertu dugula da eta horrekin batera bere ezaugarriak. Zientzietako arrazoiak ez dio lekurik uzten hain zehatza ez den arrazoiari eta politika eta etika bezain gai garrantzitsuetan ezin da “egirik” esan. Gai hauetan ez da egi borobilik exisitzen baina horrek ez du esan nahi edozer esatea balio duenik eta ideia guztiak koherentzia berdina daukatenik.

6. Botere antolaera honen kontrajartzea

6.1. Erresistentzia taldeak:

Donde hay dominación, hay resistencia a la dominación; donde surgen nuevas formas de dominación acaban apareciendo nuevas formas de resistencia a las pautas concretas de dominación²³.

Izenburuagatik ondorioztatu daiteke globalizazioaren kontrako aldarrikapenak ez dituela talde bakar batek egiten. Castells-en ustez, globalizazioaren aurkako mugimendua oso heterogeneoa da, bere barnean aldarrikapen eta talde desberdinak hartzen dituelako.

Globalizazioaren aurkako mugimenduaren barnean dauden taldeak oso ezberdinak dira, globalizazioak kaltetu dituen talde guztiak mugimendu honen partaide direlako. Castellsek dioen bezala, heterogeneotasunak globalizazioaren aurkako mugimendua erakargarri egiten du: hainbeste talde direnez, erraza delako baten batekin identifikatzea.

Nire ustez, 2 erresistentzia talde nagusi daude: 1) aldarrikapen globalak egiten dituen eta 2) kasu konkrituak salatzen dituen. Lehenengoaren barne ekologistak, feministak, anarkistak, giza-eskubideen babesleak, langileen babesleak, txirotasunaren aurkakoak, etab. daude eta bigarrenaren barne, identitate indigenen babesleak, Al Qaeda, identitate kulturalen babesleak...

Nahiz eta euren artean oso desberdinak izan, 2 ezaugarri dituzte komunean:

1) Etsaia bera daukate: multinazionalak babesten dituen erakunde ez-demokratikoak, kapitalismo globala eta inperialismoa(k).

2) Teknologia berrien erabilpena: aldarrikapenak egiteko, ideiak zabaltzeko, komunikatzeko, mobilizazioetarako eta erabakiak hartzeko, besteak beste.

Castells-ek sarearen metafora erabiltzen du globalizazioaren aurkako mugimenduaren funtzionamendua azaltzeko:

²³ Castels, M. *La era de la información: El poder de la identidad*. Madrid: Alianza Editorial, p177.

No se trata de una suma de luchas nacionales, sino de una red global de oposición a los valores e intereses incorporados en el proceso de globalización. Por lo tanto, sus nodos crecen y se difuminan alternativamente dependiendo de las condiciones bajo las cuales cada sociedad afronta la globalización y sus manifestaciones políticas. Es la red la que mantiene la vitalidad del movimiento incluso cuando algunos de sus nodos decaen²⁴.

Gainera, sarearen metaforak esaten digu denak direla garrantzitsuak, ez dagoela zentralismorik, ez besteak baino talde indartsuagorik.

Erakundeen urruntasunaren eta isolamenduaren ondorioz, euren artean behintzat gerturatuko dituen bitartekari bat aukeratzen dute: teknologia berriak. Zapatisten eta Al Qaedaren borrokan, adibidez, garrantzi handia izan duena.

Orokorrean eskatzen dena beste era bateko globalizazioa da, globalizazio demokratikoa, mundu guztiak onartuko dituen. Teknologia berrien sorrerak eta aurrerakuntzak nahitaez mundu interkonektatu batera eramaten gaitu, baina mundu horretako harremanak berdintasunezkoak eta bidezkoak izan behar dira.

²⁴ o.c., p.190.

6.2. Identitatearen bilaketa

Gizakiak beti izan du munduaren esangura topatzeko beharra. Unamunok esango zukeen bezala, gizakia pixkanaka pixkana “zergatik” galderari erantzuten joan da, baina “zertarako” galderari oraindik ez dio erantzuna aurkitu. Hots, unibertsoa legeak asmatzea lortu du, baina ezin izan du munduaren esangura bereganatu. Nire ustez, munduaren esangura aurkitzeak bizitzarena ere topatzea dakar berarekin eta hori da seguraski gehien larritzen gaituena: “zertarako nago hemen?” eta ez, “zertarako existitzen da mundua?”. Gure existentzia justifikatu nahiean planteatzen dugu “zertarako” galdera.

Pertsona bakoitzak bere bizitzaren esangura oinarri baten gainean eraikiko du. Pertsonaren arabera oinarria desberdina izango da. Talde batzuek ezin izango dute globalizazioan bertan bilatu, ekonomikoki baliagarriak ez direnez, globalizazio berak ez dielako utziko. Sistema kapitalista berri honek baztertze soziala eragingo du, pertsona batzuk ez dira beharrezkoak izango ez produktore ez konsumitzaile bezala. Hori dela eta, ezin izango dute esangura globalizazioan (kanpoan) aurkitu, hau da, lanean, gizarteko baloreetan, estatuan...

Beraz, esangura kanpoan ez badute aurkitzen gertutasunera jo beharko dute eta horrela esangura identitate kulturalera hurbilduko da inoiz baino gehiago. Identitatea esanguraren iturria bihurtuko da.

Identitate hitza beste zerbaitekin kontrajarriz ulertzen da; adibidez, definizioa “Real Academia Española”-n begiratzen badugu, “Conjunto de rasgos propios de un individuo o de una colectividad que los caracterizan frente a los demás” edota “Conciencia que una persona tiene de ser ella misma y distinta a las demás” aurkituko dugu. Kanpoan esangura aurkitu ezin duten taldeek, hain zuzen ere, globalizazioari kontrajarriz eraikiko dute euren identitatea.

Identitatea beti eraiki egiten da, kontua da zeri kontrajarriz egiten den, zergatik eta zertarako. Castells-ek identitatea boterearekin lotuta ulertzen du eta hori dela eta hiru identitate mota bereizten ditu: 1) identitate legitimatzailea, erakunde menderatzaileek euren dominazioa zabaltzeko eta finkatzeko ezartzen duten identitatea, 2) erresistentziako identitatea, botoredunengatik estatua edota baldintzak debalatuak dituzten taldeek eraikitzen dutena eta 3)

identitate proiektua, identitate berri bat sortzen denean gizartean duten posizioa berriro zehaztuz eta gizarteko egitura kolokan jarritz.

Denboraren poderioz, aldaketak egon daitezke identitateetan; pasa daiteke, adibidez, erresistentziako identitatea identitate proiektu izatera edo identitate legitimatzailea izatera.

6.3. Nazionalismoa

6.3.1. Status quaestionis

Castells-ek, Hooson-ek etab.-ek gaur egun identitatea adierazteko beharra zabaltzen ari dela iragarri dute. Badirudi, Castells-ek dioen bezala, globalizazioaren garaia nazionalismoaren berpiztearen garaia dela. Hala ere, nazionalismo hitzaren atzean nahaste handia dago eta askotan berariazko nahastea. Hori dela eta, uste dut nazionalismoa ondo aztertu behar dela gogoeta egokia egin ahal izateko, baina lehenik eta behin, Sádabaren hitz batzuk bildu nahi ditut:

La definición de nacionalismo se busca cómo una perla perdida. Y con un Cándil como el de Diógenes. Al final no encontramos una definición sino mil. Y no encontramos un nacionalismo sino mil. Sea como sea, el nacionalismo está de moda. Para unos, es la perversión de los tiempos. Para otros, el enemigo a batir. Para algunos, la religión del próximo milenio. Y para muchos, una nadería si se queda en simples, muy concretas y controlables reivindicaciones. Se escribe con profusión sobre nacionalismo. Y se editan diccionarios o enciclopedias que nos muestran cómo nace, cómo actúa y cómo se le interpreta. En medio, una actitud cómoda, llena de inercia intelectual y que consiste en suponer que el nacionalismo es un mal o enfermedad de algunas comunidades humanas. Con un puntero se podrían señalar esas zonas patológicas. En dicha actitud cómoda se da por supuesto que el hombre medio racional no es nacionalista. Se sigue suponiendo que el nacionalismo es una fortaleza de la derecha. Y que todos viviríamos más tranquilos si los nacionalistas nos dejaran en paz. Tanto los periféricos como los que proceden de alguna otra zona aún irredenta y dejada de la mano de la buena racionalidad occidental. El nacionalismo, además, sería la chispa que enciende la hoguera de la violencia. Una desgracia, en fin, aparte de una pérdida de tiempo, tener que hablar y tratar con los nacionalistas²⁵.

²⁵ Sadaba, J. *Nacionalismo e izquierda*. Madrid: Talasa, p. 5.

Nazionalismo hitzak, ikuspuntuaren arabera, definizio eta konnotazio desberdinak dauzka. Ez da adiera bakarreko hitza, ideologia edota sentimendu bezala definitu daiteke eta hainbat motako nazionalismoak daude. Euskal Herrira egotzi den abertzaletasun kontzeptua alde batera utziko dugu, gure definizioan nazionalismo hitzaren adiera baten sinonimoa izango delako.

Hemen dauzkagu hiztegi batzuetan topatutako nazionalismoaren adierak:

Real Academia Española:

1)Apego de los naturales de una nación a ella y a cuanto le pertenece.

2)Ideología que atribuye entidad propia y diferenciada a un territorio y a sus ciudadanos, y en la que se fundan aspiraciones políticas muy diversas.

3)Aspiración o tendencia de un pueblo o raza a tener una cierta independencia en sus órganos rectores.

Entziklopedia laburra:

1)Nazio batek beregaintasuna lortzeko edo estatu bat osatzeko duen eskubidearen alde egiten duen dotrina edo higikunde politikoa.

2)Nazio nortasunaren goratzea, nork bere nazioarekiko atxikimendu gartsua edo grinatsua; atxikimendu horretan oinarritzen den dotrina, nazioa gainerako gauzen gainetik jartzen duena.

Encyclopedia Britannica On line:

1)Loyalty and devotion to one's nation or country, especially as above loyalty to other groups or to individual interests.

Hiztegi hauetan nazionalismoa bi eratan ulertzen da: sentimendu edota ideologia bezala. Halaber, nazionalismoa mota desberdinetan bereiz ditzakegu: nazionalismo etnikoa eta zibikoa, nazionalismo menperatzailea eta erresistentziako nazionalismo, etab.

Wikipedia entziklopedia askeak dioenez, nazionalismo mota jakin batek (etnikoa deitu ohi denak) ezaugarri kultural objektibo batean edo zenbaitetan (hizkuntza, arraza...) jarriko du indarra; eta beste batek (zibikoak) borondate politikoan. Bigarren forma hau Frantziako Iraultzatik eratorritako tradizio

liberalarekin erlazionatu ohi da. Baina askotan banaketa hau nazionalismo jakin bat deskalifikatzeko erabiltzen da (X nazionalismoa etnikotzat jotz). Era berean, nazionalismo eredu bi hauek errealitatean era nahasian ematen dira.

Castellsek nazionalismoaren inguruan beste bereizketa bat egiten du.

*El nacionalismo contemporáneo es más reactivo que proactivo, tiende a ser más cultural que político y, por ello, se orienta más hacia la defensa de una cultura ya institucionalizada que hacia la construcción o defensa de un estado*²⁶.

Ni ez nago erabat ados bereizketa honekin. Euskal Herriaren kasuan, adibidez, talde handi batek eskatzen duelako autodeterminazioa, ez autonomia gehiago. Egia da, abertzaletasuna berez “reaktivo”-a dela baina “proactivo”-a izatera iritsi da, estatu berria sortzeko eskubidea aldarrikatzen duelako. Era berean, Kataluniako, Galiziako... nazionalismoarekin ere gertatzen da.

Baina guk beste bereizketa bat egingo dugu: nazionalismo menperatzailea eta erresistentziako nazionalismoa. Lehenengoa doktrina inperialisten oinarria da, estatu boteretsuek erabiltzen dute koloniak eta beste talde etno-kulturalak bereganatzeko eta menperatzeko. Bigarrena, ordea, nazionalismo menperatzailetik babesteko eta boterean ez dauden talde etno-kulturalen nortasuna iraunarazteko erabiltzen dute.

Nazionalismo menperatzaileak Castells-en identitate legitimatzailearekin parekotasunak ditu eta erresistentziako nazionalismoak, erresistentziako identitatearekin. Bi nazionalismo mota hauek jarraitzaile sutsuak dituzte: nazionalismo menperatzaileak ez duelako estatu-nazioaren garaian zeukan indarra galdu nahi eta erresistentziako nazionalismoak inoiz izan ez duen boterea eduki nahi duelako.

²⁶ Castels, M. *La era de la información: El poder de la identidad*. Madrid: Alianza Editorial, p.62.

6.3.2. Nazionalismoaren sorrera:

Nazionalismoaren sorrera kapitalismoaren garapenarekin bat dator. Nazionalismoa nazio modernoarekin batera sortu zen eta azken hau estatuen lurraldeen eta ekonomiaren bateratze berriarekin. Nazionalismoak bat egin zuen lurraldeen bateratze berriarekin, feudalismoaren kontra ipiniz. Hasieran, XVIII. eta XIX. mendean, arrazionalismo filosofikoari eta ideia iraultzaile antifeudaleei lotuta agertu zen.

Beranduxeago, beste nazionalismo mota bat sortu zen, lehenengo mugimendu hau alemaniar arraza eta herriaren espiritua goraipatzen hasi zenean.

XIX. mendearen lehen erdian, nazionalismo jakobinoak, mugimendu erromatikoak eraginda, estatu feudalen aurkako borrokan parte hartu zuen eta 1848ko Europako iraultzaren protagonista nagusia izan zen. Baina Italia eta Alemaniaren bateratzearen eta langileen mugimendu internazionalista baten agerpenaren ostean, nazionalismoak bere bidea aldatu zuen eta helburu iraultzaileak alde batera utzi zituen, nazioa aldarrikatuz eta klase-diferentziak eta klase-tentsioak ukatuz.

6.3.3. Nazionalismo menperatzailea

Nazionalismoaren aldaketa honek ahalbidetu zuen nazionalismo menperatzailearen sorkuntza. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, hedapen kolonialaren ondorioz, nazionalismo mota hau doktrina inperialisten oinarria izatera iritsi zen. Inperialistek nazionalismoa erabili zuten koloniak bereganatzeko eta menperatzeko. 1930ean Alemania nazia, Italia faxista eta Espainia frankista bezalako sistema totalitarioekin, nazionalismoan jazotako aldaketa hau bere gorenera iritsi zen.

Nazionalismo mota honi menperatzailea deitu diot, berez konkistatzailea eta menderatzailea delako, kolonia, talde etniko edota kultura baten nortasuna eta borondatea ukatzen du, nazio indartsu baten batasunaren izenean.

Mugimendu honek estatu nazionala beharrezkotzat jotzen du herri bateko helburu sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortzeko. Nazionalismo menperatzailea estatu-nazioari lotuta dago eta ez ditu onartzen bere barneko “nazionalismo banatzaileak”.

Lan honetarako adibide baliagarriena Espainiarena da. Nazionalismo mota honen unerik gorenean, Primo de Riverarekin eta, beranduxeago, Frankorekin, Kataluniako, Galiziako, Euskal Herriko eta kolonietako nazionalismoak jazarri ziren, “unidad de destino en lo universal” kontzeptuaren izenean.

Gaur egun, aldaketak egon dira: “demokrazia” batean bizi gara, ez daude “koloniarik” (Ceuta eta Melillaren kasua alde batera utziko dugu) baina ukatu egiten da herri hauen borondatea zein den jakitea eta “unidad de destino en lo universal” “unidad de España” kontzeptuagatik ordezkatu dute.

Espainiaren kasuan gauza bitxi bat gertatzen da, ez du bere burua nazionalistatzat jotzen, nahiz eta bere nazioa inposatu eta besteei uko egin. Honi buruz aipamen interesgarriak egin zituen Joan B. Culla i Clarák 2007ko Martxoaren 17an *País*-en idatzitako artikulua batean:

Desde hace más de un siglo, la cultura política dominante en la Península es la resistencia del nacionalismo español a reconocerse a sí mismo como tal. Posiblemente, el fenómeno empezó a forjarse a finales del siglo XIX, frente a las guerras coloniales en Cuba y Filipinas: vistos

desde la metrópoli, los rebeldes mambises o tagalos eran los nacionalistas y separatistas; el poder militar y el discurso político españoles se limitaban -en palabras de Cánovas- a "mantener la herencia nacional"²⁷.

Gainera, eskuin muturreko nazionalistak ez ziren nazionalistak, baizik eta nazionalak. Nazional izena ere atxikitzen zitzaion bando frankistari eta nazionalista izena, ordea, aldarrikapen euskaldunei, katalanei eta galegoei esleitzen zitzairen. Honez gain, artikulatu berak esaten du:

En los célebres Veintisiete Puntos de la Falange (1934) las palabras nacionalismo o nacionalista no aparecen ni siquiera una vez, como tampoco lo hacen en los textos doctrinales de Acción Española. La Confederación Española de las Derechas Autónomas (CEDA), por su parte, afirmaba en su programa fundacional (1933) ser "opuesta a todo nacionalismo"²⁸.

Nazionalismo kontzeptu hau demokrazian ere mantendu da eta bere burua nazionalistatzat jo gabe jarraitzen dute, baina 1982an PSOE-k hauteskundeak irabazi zituenean, *The New York Times*-ek Felipe González eta bere jarraitzaileak gazte nazionalista espainolak bezala definitu zituen. Gaur egun ere hainbeste elkarte sortu dituzte "ez direnak nazionalistak, baizik eta nazionalak": Fundación para la Defensa de la Nación Española, Plataforma España y Libertad, Asociación Hispánitas, Foro España Hoy...

Idea bat egiteko nazionalista ez den "Fundación para la Defensa de la Nación Española"-ren helburuetako batzuk hauek dira:

- el cultivo del patriotismo, y la afirmación de España como Nación;
- la movilización social de los españoles en defensa de la dignidad de la Nación española y de su inquebrantable unidad territorial y social;
- así como la defensa del derecho de los españoles a que se respeten escrupulosamente los principios constitucionales sin que los

²⁷ Culla y Clara, J.B.: El País. 2007-03-17.

²⁸ O.c.

residentes de ninguna comunidad autónoma puedan suplantar la soberanía nacional usurpando decisiones que sólo competen al conjunto de los españoles.

Laburbilduz, Espainian nazionalismo menperatzailearentzat nazionalismo mota bakarra erresistentziako nazionalismoa da, orain ikusiko duguna.

4. Erresistentziako nazionalismoa

Nire ustez, nazionalismo mota hau ezkertiarra da, nahiz eta eskuindarrek ere babestu ahal duten. Estatuak desberdinak diren talde etniko edota kulturei egindako zapalkuntza dela eta, talde hauen aldarrikapenak nazionalista kutsua hartzen dute. Hots, estatu indartsuek “bere lurraldeetan” dauden taldeei bere kultura inposatu nahi die eta hauek, bere nortasuna babesteko, erresistentziako nazionalismoa garatzen dute.

Askok ukatuko dute ideia hau, ezkerra internazionalista delakoan. Baina ezkerrek beti babestu ditu gutxiengoen eta gutxituen aldarrikapenak eta ez herriari kontsultatu gabeko boteredunen sistema. Gerta daiteke eskuindarrek ere babestea nazionalismo hau, talde gutxituko kide izanik, interes pertsonal edo ekonomikoengatik, baina defentsa hau berez ezkertiarra dela uste dut. Hori bai nazionalismo mota honek bere helburuak lortu dituenean, bere taldearen edo kulturaren biziraupenaren bermea adibidez, bere defentsa ia ez da ezkertiarra izango eta kontuz ibili beharko da, beharbada, nazionalismo menperatzaile bat babestera pasa daitekeelako.

Nazionalismo ezkertiarra ukatzen duten batzuek estatu-nazioaren batasuna ipintzen dute euren sistemaren oinarri bezala eta euren ideologiaren ideia guztien gainetik; lehen esan dugun bezala, euren burua nazionalistatzat jo gabe. Baina Sádabak dioen bezala, benetako internazionalistak hau uste beharko luke:

*Quienes aspiramos a un mundo sin estados consideramos que todos están de sobra. Y cuando, inclinados ante el peso inexorable de la realidad, tenemos que admitirlos, los tomamos provisionalmente y con la máxima apertura. Tanta, que nos lleva a pedir, desde el momento que hay uno, tantos como la gente desee*²⁹.

Gainera, ezin da justizia unibertsala eskatu, lehenenago herrien borondatea ez bada onartu.

²⁹ Sadaba, J. *Nacionalismo e izquierda*. Madrid: Talasa, p.9.

7. Euskal Herria globalizazioan

7.1. Euskal identitatearen eraikuntza:

Aurreko atalean hasi naiz azaltzen Euskal Herriaren auzia baina oraingo honetan pixka bat gehiago sakondu nahi nuke. Lehen esan dugun bezala, identitatea eraikitzean kontua da zeri kontrajarriz egiten den, zergatik eta zertarako. Euskal Herriaren kasuan, Orson Welles-en arabera, “Around the World with Orson Welles” deitutako dokumentalean, inork ez daki nortzuk diren euskaldunak baina argi dago ez direla espainolak, ezta frantsesak ere. Etorkin espainol edo frantses asko (eta etorkinak ez diren beste euskaldun asko) ez dira ados egongo baieztapen honekin eta beste era batera ikusiko dute bere burua: erdi espainola erdi euskalduna, erabat espainola, etab... Hala ere, ukaezina da Euskal Herriak ohiturak, kultura, nortasun eta hizkuntza desberdina daukala. Eta zergatik ez? Identidade desberdina.

Zergatik galderari erantzutea zailagoa iruditzen zait. Alde batetik, kultura, erlijioa, ohiturak eta hizkuntza bera izatea berebiziko garrantzia du identitate komun bat eraikitzeke nahian baina, bestetik, Euskal Herriak jasan dituen erasoak ere eragin handia izan du. Euskal Herriko Hegoaldean berezko identitatea askoz gehiago aldarrikatzen da; Frankismoaren garaian, adibidez, kutsu euskalduna zeukan edozerk edo edonork eraso larriak pairatu baitzituen. Iparraldean, oster, eraso inoiz ez da hain agerikoa izan eta, hori dela eta, jendearen erantzuna ere samurragoa izan da. Espainolak okertu egin ziren euren estrategian, ez aurka ez alde egitea nahikoa delako kultura horren pixkanakako desagerpena bultzatzeko, gutxien kultura batek laguntza behar duelako bizirauteko.

Zertarako galderari erantzuteak igarlearena egitea dakar. Zertarako kontrajarri nahi dugu gure identitatea besteetara? Identitate baten eraikuntzak identitate berri baten sorrera dakar, ezin dugu atzera begiratzuz geratu, gaur egunera egokitu behar gara. Baina, orduan, ez badugu nahi askotan aldarrikatutako identitate euskalduna zaharkitua eta atzeratua geratzea, zertan oinarritu nahi dugu? Zer izatea nahi dugu identitate euskalduna?

Castellsek dio Kataluniako identitatea batez ere linguistikoa dela eta Pujolen hitz batzuk biltzen ditu:

Jordi Pujol también insiste en la lengua como el cimiento de la identidad catalana, al igual que la mayoría de los observadores: “La identidad de Cataluña es, en buena medida, lingüística y cultural. Cataluña nunca ha reclamado una especificidad étnica o religiosa ni ha insistido en la geografía o ha sido estrictamente política”³⁰.

Hizkuntzan oinarritzen bagara, jende gehiagorengana heldu ahalko gara. Muga nazionala ezartzeko modu hau ez da lurraldetasuna bezain arbitrarioa izango eta etnizitatea bezain eksklusiboa.

Sádabaren ustez:

La lengua vasca ha sido el vehículo de su singularidad en cuanto pueblo³¹”; “cosa que no tiene por qué dañar los derechos de los castellanoparlantes. Conviene insistir en que de esta forma no se está afirmando que el euskara sea la carta de ciudadanía de lo vasco. Hay que sostener, sin embargo, que la tarea de un nacionalismo consciente está unida al destino de su lengua en el caso de Euskadi”³².

Kontua da euskararen oinarritzeak ere arazoak dakartzala: euskara ez dakiena ez da euskalduna ala?

El euskara es símbolo, resto de extraordinario interés, monumento histórico espléndido (que desgraciadamente va desapareciendo o siendo contaminado sintáctica o semánticamente), pero no es aquello que hace que el vasco sea vasco y no otra cosa. En Euskadi- se podría decir de manera enfática- a nadie se le discrimina por no saber euskara³³.

³⁰ Castells, M. *La era de la información: El poder de la identidad*. Madrid: Alianza editorial. 2003, p.79.

³¹ Sádaba, J. *Nacionalismo e izquierda*. Madrid: Talasa, p. 19.

³² o.c., p.19.

³³ o.c., p.50.

Euskarak identitate ezberdin horren aurkezpen gutuna, ibilgailua eta adierazlea izan behar du baina, nire ustez, euskal identitatearen funtsa jendearen borondatea izan behar da. Borondate horren atzean egon daitezke arrazoi kulturalak, linguistikoak, etab. eta hoiek errespetatu eta bermatu behar dira, baina identitatearen oinarria herri bat izateko borondatean kokatu behar da eta hori edonork eduki dezake: Senegaleko etorkin batek, Extremadurako etorkin batek edo Errigoitin jaiotako batek. Oinarri unibertsalagoa da.

En vez de remarchar, una y otra vez, un hecho- la lengua, la etnia, etc.- mejor es decir: existe un conjunto de personas amparadas democráticamente porque se trata de un conjunto de personas que quiere mantener su identidad y, en consecuencia, su independencia política³⁴.

Herriaren borondatea errespetatzea edo, behintzat, ezagutzea ez da eskubide bezala onartzen, baizik eta aldarrikapen nazionalista bezala. Hala ere, autodeterminazio eskubidea 80 eta 90. hamarkadako hirugarren belaunaldiko giza eskubideen artean dago.

³⁴ o.c., p. 54.

7.2. Bi erronka nagusi

Globalizazioak eragindako aldaketek zentzu handiagoa emango diote borondatean oinarritutako identitate proiektuari. Erresistenziako taldeek eskatzen dutena jendearen borondatea errespetzea da edo, zapatistek dioten bezala, mundu guztiak posible diren mundu bat eraikitzea.

Uste dut globalizazioan bi erronka nagusirekin topatuko garela: euskara eta gure kultura bultzatu nahi badugu, alde batetik, informazioaren teknologia eskuratzen saiatu beharko gara eta, bestetik, etorkinak “geureganatu” beharko ditugu. Interneten ibiltzeko ez da beharrezkoa baliabide asko edukitzea eta euskararen sustapenean garrantzi handia izan dezake. Era berean, euskara etorkinak Euskal Herrian integratzeko oztopoa izan daitekeela iruditzen arren, nire aburuz, kontrakoa gertatzen da, euskara ikasteak asko erraz dezake integrazioa, euskaldunok etorkinaren ahalegina eskertuko dugulako.

7.2.5. Teknologia

Lehenengo eta behin, gaur egun teknologiak duen garrantziaz jabetu behar gara. Atarian esan dugun bezala, aurrerapen teknologikoek mundua eta gure bizimodua aldatzen ari dira. Gainera, Patxi Juaristik dioen bezala, “etorkizunean gizartearen aberastasuna garapen teknologikoaren edo edo-eta teknologia berriak ekoiztu eta erabiltzeko gaitasunaren arabera egongo da³⁵”.

Teknologia bihurtuko da gure gizarteko protagonista:

- 1)Bera izango da boterearen eta aberastasunaren iturria.
- 2)Lan eta bizi-baldintzak hobetuko ditu.
- 3)Ezagutza erraztuko du.
- 4)Espazio eta denboraren kontzeptuetan eragingo du.
- 5)Giza harremanak eraldatuko ditu.
- 6)Kulturan eta ohituretan eragina izango du.
- 7)Asialdia eraldatuko du.

Gaur egun, teknologia maneiatzen duena boterearen eta diruaren jabe da eta teknologia eskuratu gabe gelditzen den pertsona edo herria atzeratuta geratuko da. Teknologiaren kontrola da gaur egun balio duena.

Teknologiaren garapenak herri abertasetako lan baldintzetan eragin handia izan du, lan fisikoa gero eta gehiago ordezkatzuz eta lan psikikoa bultzatuz. Halaber, herrialde garatueta teknologia gure etxean sartu denetik bizi-baldintzen hobekuntza nabarmena izan da eta zer esanik ez medikuntzako aurrerapenak kontuan hartzen baditugu. Gainera, badirudi egunetik egunera hobetuz doala.

Horrez gain, internet informazioa jasotzeko biderik errezena eta azkarrena bihurtu da. Gure etxetik mundu osoari eta edozerri buruzko informazioa lor dezakegu noiznahi eta nonahi. Honek, hain zuzen ere, bultzatuko du espazio eta denboraren eraldaketa. Internet dagoenetik bi kontzeptu hauek eraldatu egin dira, internetek gerturatu egiten gaelako bai espazio aldetik bai denbora aldetik.

³⁵ Juaristi, P. *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*. Bilbao: Euskaltzaindia, BBK Fundazioa.2001, p.63.

Giza harremanek ere eraldaketa jasan dute. Gure arteko harremanak internetek baldintzatzen ditu. Harreman zibernetikoak gero eta ohikoagoak dira: jendea interneten bidez ezagutzen da, emailak gutuna ordezkatu du, telefonoko edo sakeleko telefonoko elkarrizketek zuzeneko elkarrizketak ordezkatu ditu, etab.

Kulturan eta ohituretan izandako aldaketak ere nabariak dira. Eguneroko ekintzetarako teknologia erabiltzen dugu: erosketak kreditu txartela edota interneten bidez egiten ditugu, egunkaria interneten bertan irakur dezakegu, etab. Gainera bestelako ekintzetarako ere oso baliagarria da: bidaiak prestatzeko, ikerketa lan bat egiteko, edozerri buruzko informazioa jasotzeko, mugimendu finantzieroetarako...

Zer esanik ez aisialdian edukitako eragina. Internet telebistaren lekua hartzen ari da. Gaur egun askok erabiltzen dute internet denbora pasa bezala. Denon aisialdian partze hartzen du teknologiak.

Beraz, teknologia hain garrantzitsua bada eta gizartearen aberastasuna garapen teknologikoaren menpe egongo bada, oso garrantzitsua izango da I+G-n (Ikerketa eta Garapenean) inbertitzea. INE-ra jotzen badugu ikusiko dugu 2005ean I+G-n gastatutakoa 1'13-ra igo dela eta EAE eta Nafarroa direla Espainiako Estatuko autonomia erkidego guztien artean gehien inbertitzen dutenatarikoak, Madril eta Kataluniarekin batera.

I+G-N GASTATUTAKOA 2005EKO BPG-RI DAGOKIONEZ³⁶

ERKIDEGOA	BPG-REN GAINEKO %
ESTATU ESPAINIARREAN GUZTIRA	1'13
Madril (Erkidegoa)	1'82
Nafarroa (Foru Erkidegoa)	1'67
EAE	1'48
Katalunia	1'35
Aragoi	0'79
Andaluzia	0'84
Gaztela eta Leon	0'89
Kantabria	0'45
Asturias (Printzerria)	0'70
Galizia	0'89
Valentzia (Erkidegoa)	0'99
Murtzia (Erregioa)	0'75
Kanariar Uharteak	0'59
Gaztela-Mantxa	0'41
Errioxa	0'66
Extremadura	0'69
Balear Uharteak	0'28

Hala ere, Patxi Juaristik dioen bezala,

Europar ikerketa eta garapenean gastatzen den mailara heltzeko asko falta zaio oraindik. Hau da, I+G-n gehiago gastatu behar da produktibitatea handitu eta etorkizuneko garapen ekonomikoa ziurtatzeko³⁷.

³⁶ Ideia Patxi Juaristeren *Euskal Herria globalizazioaren aurrean* liburutik hartu dut, baina datuak eguneratu ditut.

³⁷ o.c., p.65.

7.2.5.1. Informazioaren teknologia

Informazioaren, iritzien eta irudien kontrola estatuaren gain egon da beti. 80ko hamarkadararte, Estatu Batuetan izan ezik, munduko telebista kate guztiak estatuak zuzentzen zituen eta irratia eta egunkariak ere bere menpe zeuden. Baina telekomunikazioen hedapenarekin eta kablearen garapenarekin komunibideen pribatizazioa heldu zen. Gelditu ziren gobernuko kateak ere entzule indizearen eta publizitatearen diru-sarreraren menpe geratu ziren. Hala ere, gobernuek boterea galdu zuten arren, oraindik hedabide garrantzitsuak kontrolatzen jarraitzen dute, akzioak eta eragina izateko hainbat mekanismo dituztelarik.

Pribatizazioaz gain, tokiko hedabideen hazkundea da garai honetako berritasunetako bat. Tokiko komunikabideek berriazko entzule/ikusle batera iristea lortu dute, eguneroko gai eta arazo arruntak lantzearen bidez.

Komunikabidearen garapenak hizkuntza eta kultura gutxituei mesede handia egin die.

Ez genuke ahaztu behar teknologia berrien hedatze eta merkatzearen ondorioz, herri komunikabideek erakutsi duten dinamismoa, hemen zein leku batzuetan. Teknologia berriei esker, komunikabide handiekin lehiatzen duten herri-aldizkari, telebista eta irratien ugaritzea gertatu da. Hauek herri nortasunari oso lotuta egongo direnez gainera, horiek garatzen doazen neurrian herri nortasunaren garapena ahalbidetuko dute³⁸.

Identitatearen bilaketa azaltzean esan dugun bezala, globalizazioaren konplexutasuna dela eta, jendeak gertutasunera joko du eta horrek informazioaren bilaketan ere eragingo du. Tokian tokiko informazioa ezagutu nahiko da, eguneroko arazoei buruzkoa.

Gaur egun, gero eta tokiko irratia, telebista kate eta egunkari gehiago daude. Satelitearen bitartez, gainera, oraindik gehiago sortuko dira eta batzuk, euskaraz. Adibidez, nire herrian, Portugaleten ez dago horrelako irratia edo

³⁸o.c., p. 34.

egunkaririk baina hainbat kate ikus ditzakegu: Tele 7, Tele Bilbao, Canal Bizkaia, Bilbo Visión, Canal Euskadi. Nahikotxo ezagutzen ditudan beste bi herrialde hauetan, Ondarru eta Gernika, antzeko zerbait gertatzen da: nik dakidala, Ondarrun bi egunkari daukate eta Gernikan irrati eta telebista kate bat. Desberdintasuna euskararen erabileran dago: Portugaleteko eta ezkerraldeko komunikabideetan gaztelania erabiltzen da nagusiki eta beste adibideetan, ez.

Gune euskaldunetan ohikoa da euskararen erabilera eta erdaldunetan gero eta nabariagoa da. Adibidez, orain Tele 7-n, berrien ostean, laburpentxo bat egiten dute euskaraz. Ez da nahikoa, baina zerbait bada. Gainera, gune erdaldun zein euskaldunetako komunikabideek lantzen dituzten gaiak hurbilekoak eta herrikoiak dira.

Nabarmendu behar da

*euskarak ez duela inoiz izan mundura plazaratzeko EITB-k bultzatu duen Canal Vasco satelitezko telebista kanalak eskaintzen duen bezalako erakusleiorik. Globalizazioak inoiz baino hedakuntza handiagoa eman dio euskarari eta euskal kulturari*³⁹.

³⁹ o.c., p.69.

7.2.6. Immigrazioa:

7.2.6.1. Sarrera:

*Nur um der Hoffnungslosen willen ist uns die Hoffnung gegeben*⁴⁰.

Itxaropena ez dutenei esker bakarrik lor dezakegu itxaropena.

Euskal Herriaren konplexutasuna neurri handi batean migrazio-fluxuen ondorioa da. XX. mendean Espainiatik etorritako immigrazioak EAE-ren eraldaketan zer esan handia izan zuen. Orain, XXI mendean, migrazio-mugimendu berri baten aurrean gaude: estatutik kanpo dauden herrialdeetatik etorritakoa. Hori dela eta, Euskal Herriaren auzian zeresan handia izango dute: etorkinek hartuko dituzten erabakiek eragina izango dute autoktonoen bizitzaren alde kultural eta linguistikoan.

Eraldaketa, aldaketa eta antzeko hitzek mesfidantza eta beldurra sortzen dute, baina bizitza aldaketaren sinonimoa da; hots, ezinezkoa da bizitza eraldaketarik gabe. Edozein prozesutan eraldaketa bideratu egin behar da: helmugara iristaraztea lortzen badugu, eraldaketa onuragarria izango da.

7.2.6.2. Euskal Herriko biztanleriaren osaera:

Euskal Herriko berezitasun eta aberastasunetako bat lau motatako euskaldunak⁴¹ dituela da:

- 1) Euskal Herrian jaioetakoak
- 2) Espainiatik etorritako etorkinak
- 3) Herri garatuetik etorritako etorkinak
- 4) Herri azpigaratuetatik etorritako etorkinak

Hala ere, kontua ez da hain bakuna. Espainiatik etorritako etorkinen artean batzuk integratuta daude eta beste batzuk, ez; beraz talde hau bitan zatitu ahal

⁴⁰ Walter Benjamin


⁴¹ Euskaldun hitz erabiltzen dut Euskal Herrian luzaroan bizi den edozein lagunentzat, jaioterrria kontuan hartu barik.

dugu, bost talde sortuz. Beste kasuekin ezin dugu gauza bera egin, estatutik kanpoko etorkin gehienak duela gutxi etorri direlako. Hala ere, berezitasun gehiago kontutan hartu ahal ditugu: ama-hizkuntza gaztelania dutenak edo EB-ko herritarrak izateagatik bertokoak bezalako eskubideak dituztenak, adibidez. Honekin esan nahi dut euskal gizartearen pluralitatea eta konplexutasuna nabarmena dela.

Bestalde, argi utzi nahi dut euskaldunok ere askotan emigratu behar izan dugula eta gurea ere herri emigrantea izan dela, baina gaur egungo Euskal Herriko egoerari buruzko gogoeta egin nahi dudanez, oraingo honetan alde batera utziko dut migrazioaren norabide hau.

Hemen dago biztanleriaren konplexutasunaren froga⁴²:

Hamabost urtetik gorako biztanleen banaketa, norberaren eta gurasoen jatorriaren arabera herrialdeka, 2001




⁴² Atal honetako eta hurrengoko grafikoetako datuak M. Zapataren “Soziologiazko euskal Kuadernoak” deitutako lanetik atera ditut. Datu berak dira, baina beste grafiko batzuetan ipinita.

INE-ko datuen arabera, 2005eko Urtarrilaren 1ean Estatuko biztanleen kopurua 43,97 milioira iristen da, horietako 40,28 milioik espainiar nazionalitatea daukate eta 3,69 atzerritarrak dira; hau da, %8,4a erroldatuta dago. EAE-n imigrante gutxiago daude; hala ere, gero eta gehiago daude. 1996an atzerritarrak %0'63 ziren (13.220) eta 2003an, %2'33 (49.231).

Mario Zapataren arabera,

Estatuz kanpoko immigrazioari dagokionez, Hego Euskal Herriko egoera aztertzen dugunean kopuru erlatiboari dagokionez alde handia dago EAEko eta Nafarroako datuen artean (% 4 eta % 9 inguru). Bestetik, EAEko herrialdeei dagokionez ere beraien artean ezberdintasunak daude, kopuru absolutu handiena Bizkaian badago ere, kopuru erlatiborik handiena Arabakoa da⁴³.

■ Estatutik kanpoko etorkinen kopuru erlatiboa herrialdeka (2005)




7.2.6.3. Etorkinen seme-alabak ikastetxeetan:


Etorkinak gero eta gehiago izatea etorkinen seme-alaben presentzia ikastetxeetan handiagoa izatea dakar. Gainera datu koherenteak dira, oraingo honetan ere kopuru absolutu handiena Bizkaian dago eta kopuru erlatiborik handiena, Araban.

⁴³ http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1149839897

Estatu espainiarretik kanpoko etorkinen seme-alaben kopuru absolutua eta erlatiboa, herrialdeka (2004/05)




**Estatu espainiarretik kanpoko etorkinen seme-alaben eboluzioa,
herrialdeka (2003/04 - 2004/05)**



Ikasle etorkinen hazkundea gero eta handiagoa da Hego Euskal Herrian. Derrigorrezko hezkuntzan, ikasleeen % 4,4 etorkinen seme-alabek osatzen dute. Urtero EAEn 2.500 inguru dira eskolan izena ematen duten ikasle etorkinak. Hala ere, batez besteko handiena Nafarroan ematen da: han 10 ikasletik bat etorkina da.

Alabaina, Euskal Herriko eskoletan ikasten hasten diren etorkinen seme-alabak gero eta gehiago izan arren, beste herrialde batzuekin alderatuta kopurua ez da hain handia.


Estatutik kanpoko etorkinen seme-alaba gehienak (%69) eskola publikoan matrikulatzen dira. Beheko taula begiratzen badugu, konturatuko gara Gipuzkoan publikoa eta itunpekoaren arteko aldea txikia dela, hango eskola publikoko A ereduko eskaintza oso txikia delako.



Gainera, estatutik kanpoko etorkinen seme-alaba gehienak A ereduan matrikulatzen dira eta gutxiengoa D ereduan.

Estatu espainiarretik kanpoko etorkinen seme-alabak ereduen arabera:

orokorra eta herrialdeka (2004/2005)



EAE mailako datuetan joera orokorra eta etorkinen seme-alabenena ia alderantzizkoa da. Herrialdez herrialde joera hori mantentzen da, eta kasu batzuetan joera are urrunagoa da. Araban, esaterako, ikasleen ia heren batek D ereduan ikasten duen bitartean, eredu horretan soilik etorkinen seme-alaben %4,3 aritzen da⁴⁴

Grafiko hau ikusita galdera hauek datorzkit burura: 1)Zergatik etorkinen hautaketa ez dator bat bertakoek egindakoarekin? 2)Zeintzuk dira hautaketa horren ondorioak? 3)Ondorioak ez baldin badira onuragarriak, zer egin daiteke?

Gero eta jende gehiagok D eredua hautatzen duen bitartean, etorkin gehienek A eredua aukeratzen dute. Hauek izan daitezke eurek pentsatutako arrazoiak:

-Gehienak Hego Amerikarrak direnez, A ereduan ikaste errazagoa izango da.

-Hizkuntza berri bat ikastea (gaztelania) ahalegin handia bada, bi ezinezkoa.

-Herri askotan kalean gaztelaniaz hitz egiten dutenez eta bertako askok euskara ez dakitenez, zertarako ikasi?

-Euskaraz hitz egiten ez duten herrietan, gaztelania bakarrik ikasiz integratzea errazagoa izango da bi hizkuntza ikasiz baino, arinago ikasiko dutelako hizkuntza bakarra bi hizkuntza baino.

-Gaztelania ez dakitenek lehenago gaztelania ikasteko beharra sumatuko dute. Normalean izaten dituzten lanpostuetarako (etxe garbiketa, ume eta zaharren zainketa, eraikuntza, kaleko salmenta...) eta medikuarenera joateko edo administrazioa jotzeko ez dute euskara behar. Oso leku gutxitan ikasi beharko dute euskara lehenengo: Ondarroan gerta daiteke, arrantzale izateko.

-Denboraldi laburrerako datozenean euskara ikasteak ez du merezi.

-Umeak gaztelania lehendik dakielako. Etorkin gehienak hegoamerikarrak direnez pentsatu ahal dute errazagoa izango dela integrazioa, hizkuntzaz aldatzen ez badute.

⁴⁴ Zapata, M. *Soziologiazko euskal koadernoak*, p.43.

-Umeak hizkuntza erromanikoren bat ezagutzen badu (errumaniera, portugesa, frantsesa...), gaztelania ikastea erraztuko dio.

-Eskola batzuetan ondo pentsatu gabe etorkina erdaraz eskolatzen dute, etorkina A ereduarekin identifikatzen dute.

-Ezjakintasuna dela eta: askok ezer gutxi dakite euren herri berriari buruz eta, gutxiago, bertako egoera soziolinguistikoari buruz. Heltzen direnean, batzuek gaztelania bakarrik hitz egiten dela uste dute eta normala da, Amelia Barquinek dioen bezala, “etorkinak oinarrizko arazoak dituzte eta oinarrizko arazo horiekin daude arduratuta: lana aurkitzearekin arduratuta daude, etxebizitza aurkitzearekin, etxebizitza hori eroso egitearekin, paperak lortzearekin, familiaren egoera konpontzearekin, seme-alaben eskola topatzearekin... Ezagutzen zuten mundua utzi dute: familia, lagunak, bizimodua, hizkuntza... eta ezagutzen ez duten mundu batean murgildu dira. Ez dituzte mundu horretako klabeak ezagutzen eta ez dakite iraun ahal izango duten. Horrek ondorez emozional handia sortzen du. Ulergarria da heltzen diren herrialdeko egoera soziolinguistikoa beren lehentasunen artean ez izatea. Eta noski, hori paperak dituztenei dagokienez. Zer esan paperik ez duenari buruz (10tik 4 Nafarroan, 4tik ia 2 EAEn), kalean ibiltzeko beldurrez bizi denari buruz. Zein autoktono ausartuko da horri eskatzen Euskal Herriko egoera soziolinguistikoarekin konpromisorik?⁴⁵”.

-Askotan eurek ere hizkuntza gutxitua izanik, ez daude kontzientziatua, beraz zailagoa izango da arrotza zaien hizkuntza baten arazoetaz kontzientziatzea.

-Seme-alabak nerabeak direlako eta orain euskara ikasten jartzeak ikasketak atzeratuko lituzkeelako.

Zein ondorio dakar etorkinen seme-alabek A ereduan ikasteak? Nire aburuz, ondorio txarrak dakartza etorkinentzat eta hala moduzkoak bertokoentzat. Ikus dezagun...

-Gizartean integratzeko oztopoak, teoriarik behintzat elebiduna den gizarte batean bizi gara. Gainera, kontu honengatik dagoeneko ghettoak sortzen ari dira, A ereduan batez ere etorkinak matrikulatzen direlako.

⁴⁵ Barquín, A. www.erabili.com. 2005-01-17

-Ezin izango dituzte elebitasuna eskatzen duten lan batzuk lortu, hala nola, administrazioak.

-Zailtasun handiagoak izango dituzte euskal kultura eta ohiturak ezagutzeko.

-Euskara ikasten badute, errazago irabaziko dute euskaldunen mirespena.

-Euskaldunen laguntza txikiagoa izango da euren kultura eta identitatea babestu nahi dutenean, euskal kulturarekiko atxikimendua ez dutelako erakutsi.

-Euskararen normalizaziorako oztopo bat izango da, etorkinak gizarte honen partaide izanik, nahigabe edota zeharka gaztelaniaren elebakartasunaren alde egiten dutelako.

Eta hau guztia aldatzeko zer egin daiteke?

-Ereduei buruzko informazio zehatza eman, eredu bakoitzaren alde onak eta txarrak azalduz.

-Informazioaz gain, aukerak eman behar zaizkie. Baliabideak behar dira ikastetxetik kanpo euskarako eskolak jasotzeko. Gaur egun euskarako eskola hauek dirua balio dute eta gaztelaniako eskolak, berriz, dohainik dira.

-Oraingoan ere bat nator Amelia Barquinekin esaten duenean “bakarrik jarrera baikor, estrategiko eta solidario horretatik lortuko dugula euskararekiko “sinpatia”. Eta sinpatia hori behar beharrezkoa dugu euskarak aurrera egitea nahi badugu; iraun behar badu, euskarak ez du soilik hemen jaiotakoona izan behar: kanpotik etorritakoena ere izan beharko du⁴⁶”. Ahalegina egin behar dugu etorkinak geureganatzeko eta euren egoera tragikoa ulertzeko, bakarrik horrela lortuko dugu eurek ere gure egoera soziolinguistikoa ulertzea.

7.2.6.4.Integrazioa:

⁴⁶ O.c.

Azken finean, Barquinek uste duen bezala, integrazioa bi norabidekoa izan behar du: geuk ere euren kulturarari eta hizkuntzari begirunea zor diegu. Integrazioa ez da jatorrizko identitatea galtzea eta beste identitate bat eraikitzea, baizik eta moldatzea. Urteak pasa ahala, identitatea eraldatuz doa. Gainera, pedagogikoki komenigarria da umeak bere lehen hizkuntza garatzen jarraitzea. Ikerketek diote beste hizkuntzak arrakastaz ikasteko lehen hizkuntza ondo jakin behar dela.

Laster hirueledun eredua abian jarriko da, ematen du irtenbide ona izan daitekeela euskara etorkinei gerturatzeko. Hala ere, benetan kontuan hartu beharko litzateke eta eraldaketa sakona egin, euskararen etorkizunaren zati handi bat etorkinen esku egongo delako. Identitatea borondatean oinarritzeko, gure nahia eurena ere izan behar du eta eurena, noski, gurea.

Hizkuntzaren ezagutza izateak ez du integrazioa bermatzen, baina argi dago hizkuntza ez ezagutzeak integrazioa erabat baztertzen duela. Ez dago integratuz ailegatutako gizartearen hizkuntza jakin ezean⁴⁷.

Itxaropena, batez ere, etorkinen seme-alabengan izan beharko genuke, haiek eskolari esker euskara ikasten duten heinean. Horixe bera da autoktono elebazarrekin daukagun esperantza, sinple esanda: jarrera positiboak izan ditzaten eta seme-alabak euskara ikastera eraman ditzaten (bi gertaerak lotuta daude maiz; lehenengoa bigarrenerako baldintza izan ohi da)⁴⁸.

Gogoan izan behar dugu:

1.-Arazoa ez dela immigrazioa, baizik eta euskara normalizatua ez dagoela.

2.-Eskola Publikoaren Legearen (1993) helburuetako bat hau dela: *Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.*

⁴⁷ O.c.

⁴⁸ O.c.

7.2.6.4.1. Eredu berria:

Orain arte hiru ereduko irakaskuntza izan dugu:

-A eredia: irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira, euskara irakasgaia izan ezik.

-B eredia: euskara ez da irakasgai gisa bakarrik ematen, curriculumaren beste materia batzuk ikasteko ere erabiltzen da.

-D eredia: irakasgai guztiak euskaraz ikasten dira, gaztelania irakasgaia izan ezik.

Orain dela gutxi jarri da abian irakaskuntza eraldatuko duen proiektu bat: irakaskuntza eleanitza. Alde batetik, globalizazioak ingelesaren indarra eta ezagutzeko beharra handitu du. Gaur egun interneten aritzeko, ikasteko, karrera bat egiteko, lan egiteko, komunikatzeko.. oso lagungarria da. Bestetik, 3 ereduetan oinarritutako irakaskuntza atzeratuta geratu da, batez ere, A eredia marjinazioaren sorlekua bihurtu delako. Gaur egun, A ereduan batez ere etorkinak daudenez, ikastetxeetan ghetizazioa eta bazterketa handitzen ari da.

Gainera, derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran ikasleek duten euskara mailaren neurketek frogatu dute derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasle guztiak ez direla elebidunak. Hau ekiditzeko beharrezkoa da euskararen normalizazioan pauso berriak ematea edota hezkuntza sistema eraldatzea, orain arteko eredia ez delako nahikoa gaur egungo egoerari aurre egiteko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 2003-2006 aldirako Hezkuntza Berriztatze programak jarri ditu martxan. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren arabera, hau da proiektuaren helburuetako bat:

Nahitaezko irakaskuntza amaitutakoan, ikasle guztiei bermatzea bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabiltzeko gaitasuna, eta atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, komunikatzeko gutxieneko gaitasuna erdiestea⁴⁹.

⁴⁹ http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_5614/adjuntos/experiencias_innovacion/convocatoria_multilin_e.pdf

Hizkuntzak gizarte-testuinguru jakin batean eskuratzen direnez, pentsatu dute hizkuntza baten ezagutza hezkuntza sistematik zabaltzeko erarik egokiena hizkuntza hori beste ezagupen batzuk eskuratzeko erabiltzea dela.

Planteamendu hori martxan jartzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak esperimentazio eleaniztuna abiarazi du Bigarren Hezkuntzako 12 ikastetxetan 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetan. Esperimentazio horren nondik norakoei buruzko azterketa orokorra egin eta gero, eta parte hartu duten ikastetxeen balorazio positiboa jaso ondoren, Sail honek, bere Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren bidez, segida eman nahi dio esperimentazio horri, baita beste ikastetxe batzuetara zabaldu ere, baldin eta horretarako interesa badute⁵⁰.

Patxi Alañaren arabera, hezkuntza sistema berrian

ikastetxe bakoitzak doiketa batzuk egiteko aukerak izango lituzke, adibidez asignatura bakoitzaren hizkuntza, beti ere gutxieneko hizkuntz ehunekoak errespetatuz. Eredu berriak honako hizkuntz ehunekoak izango lituzke: euskarak % 50-60, ingelesak % 20-25 eta gaztelaniak Hegoaldean edo frantsesak Iparraldean % 20-25. Ehuneko hauek % 10-5eko aldaera dute eta honako faktoreen arabera alda liteke: maila edo zikloa, ikastetxea, hizkuntz ingurunea edo gurasoen eskaera. Eredu honek malgutasuna eskaintzen du (% 10 aldaketa) baina, bestetik, euskara eta ingelesa ondo ikasteko gaur egun Euskal Herrian gutxienez erabili behar diren ordu kopurua bermatzen du⁵¹.

Gainera, ikasle guztiak euskalduntzeko helburua ea lortzen baden jakiteko euskalduntzeari B2 gutxieneko maila neurgarria jarriko diote.

Nire ustez, hauek dira hezkuntza sistema berriaren aldaketarik nabarmenenak: 1)ingeleza materia batzuk ikasteko erabiltzea eta 2)eredu

⁵⁰ o.c.

⁵¹ Alaña, P. erabili.com. 2007-02-14.

bakarra sortzea. Lan honetan batez ere bigarren ezaugarria azpimarratu nahi dut, eredu bakarra sortzeak A ereduko baztertzearekin amaitzea esan nahi duelako eta etorkinan nahitaezko hurbilketa D eredura.

8. Ondorioa

Nolako mundua, halako herria. Izenburuak lanaren gaia azaltzen du baina okerreko ideia batera bultzatzen gaitu: gaur egungo mundua gero eta homogeneoa bada, herria, Euskal Herria, ere horrelakoa izan beharko du. Horrela, lehenengo perpausa eta bigarren perpausa sintonia berean egongo lirateke. Baina bigarren perpausa lehenengoaren kontrako erreakzioa da, hain zuzen ere: herria ez da eraikitzen munduaren tankera, baizik eta munduari kontrajarrita. Dominazio forma berri baten aurka, sistema neokapitalistaren aurka, erresistentzia forma berriak sortu dira. Globalizaziak dakarren homogeneotasunaren kontra, heterogeneotasuna, herri guztiak posible diren mundu bat, aldarrikatzen da.

Honekin ez dut esan nahi herrietan ez direla erabiltzen globalizazioaren tresnak eta baliabideak edo herriak ez duela zerikusirik mundu berriaren ezaugarriekin, baizik eta errealitate berean egonik, munduaren aurka matxinatzen dela, ez dituelako onartzen mundu horrek dakartzan ondorio larriak: demokrazia eza, enpresa multinazionalen eta elkarte internazionalen kontrol politikoa, pentsamendu unidimensionala eta kritika falta, giza eskubideak ez errespetatzea, baztertze soziala, herri azpigaratuen txirotasuna handitzea, boterean ez dauden identitate kulturalen jazarpena, etab.

Gure herriak, beste edozein herrik bezala, harreman estua dauka Munduarekin. Ez mundua gobernatzen duelako, baizik eta erresistentziako taldeen partaide delako. Bi erresistentzia taldeetatik (aldarrikapen globalak egiten dituen eta kasu konkrituak salatzen dituen), Euskal Herria bigarren erresistentzia taldearekin dator bat: kasu konkrituak salatzen dituenarekin, identitate kulturalen babeslearekin edo guk erresistentziako nazionalismoa deitu dugunarekin.

Euskal identitateak euskaldunon berezitasunak (euskara, ohiturak, kultura...) bildu behar ditu eta garai berriaren aurrerapen positiboetaz (internet, aurrerapen zientifikoak, medikuntzako aurrepean...) baliatu behar da, baina, batez ere, euskaldunok⁵² nahi duguna izan behar da. Euskaldunon

⁵² Oraingo honetan ere euskaldun hitza Euskal Herrian luzaroan bizi izan den edozein lagunentzat, erabiltzen dut.

borondatean oinarritzen bada, euskal identitatearen aldarrikapena erabat demokratikoa eta zilegia izango da. Gogoan izan dezagun demokrazia hitzak boterea herriak duela esan nahi duela.

Edozein egoera berrik ahultasunak, mehatxuak, indarrak eta aukerak dakartza. Euskal identitateak globalizazioaren mehatxuei eta dakartzan ahultasunei aurre egin beharko die eta, era berean, bere indarrak eta aukerak aprobetxatu beharko ditu.

9. Bibliografia

- Alaña, P. www.erabili.com 2007-02-14
- Barquín, A. www.erabili.com 2005-01-17
- Beck, U.: *¿Qué es la globalización?*
- Castells, M. (2001): *La era de la información: Economía, sociedad y cultura*. Alianza Editorial. Madrid.
- Castells, M. (2003): *La era de la información: El poder de la identidad*. Alianza Editorial. Madrid.
- Culla y Clara, J.B: *El País*. 2007-03-17
- Echevarría, J. (1999): *Los Señores del aire: Telépolis y el Tercer Entorno*. Ediciones Destino. Barcelona.
- Fundación para la defensa de la nación española:
<http://www.nacionespanola.org/index.asp>
- Held, D.: *Globalización/Antiglobalización*.
- Hezkuntza Sailburuordea:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_5614/adjuntos/experiencias_innovacion/convocatoria_multilin_e.pdf
- INE: <http://www.ine.es>
- Juaristi, P. (2001): *Euskal Herria Globalizazioaren aurrean*. BBK Fundazioa, Euskaltzaindia. Bilbao.
- Marcuse, H(1993). *El hombre unidimensional*. Planeta Agostini. Barcelona
- Sádaba, J.: *Nacionalismo e izquierda*. Talasa. Madrid.
- Stiglitz, J.: *El malestar en la globalización*. Taurus.
- Zapata, M.: *Soziologiazko euskal kuadernoak*.
ftp://gvas.euskadi.net/pub/gv/estudios_sociologicos/csv20.pdf